

# CAMPAÑA CARITAS

## **“CREANDO COMUNIDAD”**

***17 de septiembre del 2017***

**(Domingo 24º del Tiempo Ordinario - Ciclo A)**

### ***MONICION de entrada:***

---

Durante estos domingos estamos leyendo el estilo de vida cristiano, el talante de la comunidad, la iglesia de Jesús, según san Mateo. Hoy se refiere al perdón que es necesario para vivir en comunión. Se trata de aquella disposición humana y divina a la remisión e indulgencia para con la ofensa o el mal recibidos.

Con Caritas escucharemos la llamada que se nos hace a vivir la comunión entre nosotras/os. Al trabajo del voluntariado y del profesional, hay que añadir el encuentro entre nosotras/os como miembros de la Iglesia diocesana, la sociedad entera y el pueblo sufriente que se hace llamada y acogida del don de la misericordia que Dios nos da.

## **PERDÓN**

---

Pedimos al Señor que nos enseñe a vivir el perdón que Él nos ofrece a pesar de nuestro egoísmo y desunión.

- Tú que nos has entregado tu vida para que vivamos la nuestra en paz, justicia y amor. **Señor, ten piedad.**
- Tú que viniste a liberarnos de todo mal, odio y violencia. **Cristo, ten piedad.**
- Tú que nos alimentas, fortaleces y animas a una vida siempre mejor. **Señor, ten piedad.**

Haznos libres, Señor. Líbranos del pecado y haznos buenas/os hermanas/os, reconciliadas/os y fraternas/os.

## **LECTURAS**

---

**Primera Lectura** (Eclo 27, 33-28, 9): “Perdona a tu prójimo el agravio y, en cuanto lo pidas, te serán perdonados tus pecados”. El tema central de estos diversos consejos es la amistad y sus exigencias comunitarias.

**Segunda Lectura** (Rom 14,7-9): “Ya vivamos, ya muramos, del Señor somos”. Se habla de las divergencias sobre algunos puntos, de la vida comunitaria y de cómo abordarlos en cristiano: según la conciencia de ser siervos del mismo Señor.

**Evangelio** (Mt 18, 21-35): “No te digo que perdones hasta siete veces, sino hasta setenta veces siete”. El sentido de los números es redondo, y significa innumerables veces. Y la razón es que nosotras/os, los discípulos, hemos sido perdonadas/os por Dios.

## SUGERENCIAS PARA LA HOMILIA

---

Es hermoso descubrir que la eucaristía tiene una dimensión penitencial, como aparece claro, por otra parte, en el inicio de la santa Misa que nos dispone a la escucha de la Palabra de Dios.

La Iglesia acoge a las/os cristianas/os en la asamblea comunitaria de la eucaristía desde el perdón de los pecados, porque la Iglesia es una asamblea santa, fraterna, reconciliada.

Ahora bien, esta fraternidad espiritual y la vida comunitaria a la que estamos llamadas/os todas/os las/os que participamos en la Misa, se transforma en algo efectivo y vivo para el mundo, sólo cuando el/la cristiana/o colabora eficazmente en la construcción de un mundo de perdón y de paz.

El ideal comunitario y glorioso no sustituye a la vida fraterna, que la caridad sí que la anticipa visiblemente aquí y ahora, con sus obras espirituales y materiales, con su disponibilidad y generosidad, pero que requiere ser completada y totalizada por la misericordia de Dios.

El Dios de Jesús es perdón y amor. El mensaje de Jesús es siempre de amor y perdón. No hay que temer a Dios. Nuestra fe es en un Dios que ama y perdona. Mejor subrayar esta dimensión de Dios, su eterna misericordia, que al contrario, remarcar el juicio severo y cierto de la justicia eterna.

Hemos vivido un cierto estilo de cristianismo de muy poco perdón. Parecía que todo era pecado y hasta condenación. Parecía que Dios gozaba en no perdonar sino en condenar. Se seguía la estrategia del terror, el pánico a morir y condenarse, con intención de conversión, ciertamente, pero esto ha generado, en muchas personas, el alejamiento de la comunidad cristiana que, por otra parte, estamos llamados a construir en el amor como en la verdad.

Por otra parte, la sociedad de hoy pierde el sentido de Dios y en consecuencia pierde también el sentido del pecado, del arrepentimiento y del perdón divino. Hay gente que afirma que la mayor de todas las infamias que puede cometer una persona es arrepentirse de lo que ha hecho, porque supone una destrucción de la libertad. Que el mismo término de perdón evoca un proceso sentimental y paternalista y da la impresión de una alienación religiosa, como si la/el cristiana/o que recurre a la misericordia de Dios se dispensara de su verdadera responsabilidad.

La verdad es que la experiencia nos proclama la realidad del pecado y exige a la/al cristiana/o actitudes de arrepentimiento y de perdón. El perdón es exigencia y expresión del amor universal y uno de los signos más convincentes de la salvación que hemos adquirido en Cristo Jesús.

El perdón es consecuencia del hecho de que nosotras/os mismos hemos sido perdonadas/os. No es solamente una imitación del comportamiento exterior de Jesús, sino testimonio público del perdón que nosotras/os recibimos. Caritas es expresión real de la Iglesia de Jesús que sin mirar la supuesta moralidad o inmoralidad de la persona sufridora, sabe realizar un acto de amor desinteresado hacia cualquier persona porque mira su sufrimiento y no juzga a la persona, sino que busca transformar el comportamiento desde la comunión fraterna que, es en sí misma, la realización más cabal de Dios-Amor.

## ***ORACION DE LOS FIELES***

---

Pidamos al Señor, nuestro Dios, que oriente los corazones de todas y todos hacia los verdaderos valores eternos, el perdón y la paz.

- Por la Iglesia, para que sea una Comunidad servidora al servicio de las personas necesitadas, dando testimonio del amor gratuito de Dios, como una parábola viviente de lo que deber ser nuestro perdón generoso a las/os hermanas/os. Roguemos al Señor.
- Por los que tienen puestos de responsabilidad en la política y la economía, para que la justicia y la preocupación sincera por el bien de todas y todos, guíen sus decisiones y acciones. Roguemos al Señor.
- Por las personas más abandonadas y discriminadas, y por todas/os las/os que tienen poco acceso a los bienes de este mundo, para que reciban una participación más justa e imparcial de los mismos bienes. Roguemos al Señor.
- Por nuestras comunidades cristianas, para que haya amor entre nosotras/os y una profunda preocupación por la felicidad de todas/os; para que la codicia dé paso al compartir generoso, y la envidia dé paso al servicio. Roguemos al Señor

Señor Dios nuestro, líbranos de todo lo que nos induce a replegarnos con egoísmo en nosotras/os mismos. Danos la gracia de vivir los unos para los otros y para ti, Dios nuestro. Por nuestro señor Jesucristo tu hijo que, vive y reina contigo, en la unidad del Espíritu Santo y es Dios por los siglos de los siglos. Amén

# CARITASEN KANPAINA

## **“KOMUNITATEA SORTUZ”**

**2017ko irailaren 17a**

**(Urtean zeharreko 24. igandea – A zikloa)**

### ***Sarrerako OHARRA:***

---

Azken igandeotan kristauon bizimoduaz, komunitatearen jarreraz eta Jesusen elizaz ari gara irakurtzen, san Mateoren ebanjeliotik. Gaurkoa barkamenari buruzkoa da, ezinbestekoa baita elkartasunean bizitzeko. Giza eta jainkozko jarrera bat da, eta egiten diguten gaizkiaren eta irainaren aurrean barkamenerako jarrera erakustean datza.

Gure artean elkartasunean bizitzeko egindako deia entzungo dugu Caritasen bidez. Boluntarioen eta profesionalen lanari gu guztion arteko elkartasuna gehitu behar zaio elizbarrutiko kide garen aldetik, bai eta gizarte osoaren elkartasuna eta sufritzen ari diren herritarrena ere, Jainkoak eman digun errukiaren dohaina deitu eta jasotzen duten guztiena.

## **BARKAMENA**

---

Barkamenean bitzen irakasteko eskatzen diogu Jaunari, **Hark** barkatu egiten gaitu-eta nahiz geurekoiak garen eta tira-biran bizi garen.

- Gu bakean, justizian eta maitasunean bizi gaitezen mundura ekarri gintuzuna. **Erruki, Jauna.**
- Gaitz, gorroto eta indarkeria guztietatik libre izan gintezen etorri zinena. **Kristo, erruki.**
- Jaten ematen, indartsu izaten eta bizitza hobea izateko adore ematen diguzuna. **Erruki, Jauna.**

Aske egin gaitzazu, Jauna. Libra gaitzazu bekatutik eta egin gaitzazu senide on, adiskidetu eta senidetasunezko.

## **IRAKURGAIK**

---

**Lehenengo irakurgaia** (Si 27, 33-28, 9): “Barkatu lagun hurkoari egin dizun iraina eta, zuk erregutzean, Jainkoak ere barkatuko dizkizu bekatuak”. Aholku horien ardatz nagusia adiskidetasuna da, bai eta horretarako denok ditugun betebeharrak ere.

**Bigarren irakurgaia** (Rom 14,7-9): “Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara”. Zenbait gairi buruzko iritziez mintzo da, komunitateko bizitzaz eta kristauok iritzi desberdinen aurrean izan beharreko jokabideaz: Jaun beraren zerbitzari garen aldetik, bakoitzak duen kontzientziaren arabera.

**Ebanjelioa** (Mt 18, 21-35): “Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz barkatu behar diozu”. Zenbakien esanahia borobila da, eta ezin konta ahala aldiz esan nahi du. Eta horren arrazoia da guri, ikasleoi, Jainkoak barkatu egin gaituela.

## HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

---

Zeinen ederra den ohartzea eukaristiak penitentzia-alderdi bat duela, eta hori hala dela agerian dago, bestalde, Jainkoaren Hitza entzungo dugun Meza Santuaren hasieran.

Elizak eukaristiaren batzar komunitarioan biltzen ditu kristauak, bekatuen barkamena oinarri hartuta; izan ere, Eliza batzar santu, adiskidetu eta senidetasunezkoa da.

Baina senidetasun espiritual hori eta Mezan parte hartzen dugun guztioi komunitatean bizitzeko egiten zaigun deia, munduarentzat eraginkorra eta bizia bilakatuko da, baldin eta barkamena eta bakea oinarri izango dituen mundua eraikitzen benetan laguntzen badu kristauak.

Komunitatearen eredu aintzazko horrek ez du anaiarteko biziera ordeztzen, nahiz karitatea horren seinale nabaria den hemen eta orain, asko baitira ekintza espiritual eta materialak, eta ikaragarria prestutasuna eta eskuzabaltasuna, baina Jainkoaren errukiaren bidez osatu eta osotu behar da nahitaez.

Jesusen Jainkoa barkamena eta maitasuna da. Jesusen mezuak beti adierazten du maitasuna eta barkamena. Ez da Jainkoaren beldur izan behar. Maitatzen eta barkatzen duen Jainko batengan sinesten dugu. Hobe da Jainkoaren alderdi hori, haren betiereko erruki hori agerian uztea, eta ez garrantzia ematea betiereko justiziaren epai zorrotz eta egiazkoari.

Barkamen gutxiko kristautasun eredua bizi izan dugu, nolabait ere. Den-denak bekatua zirudien, bai eta kondenazioa ere. Bazirudien Jainkoak ez zuela barkatzeaz gozaten, baizik eta kondenatzeaz. Hiltzeko eta kondenatzeko beldurraren, izuaren estrategia erabiltzen zen, konbertsioa lortzeko, baina horrek, egiatan, jende asko kristau-komunitatetik aldentzea eragin du, eta guk, besteak beste, maitasuna eta egia oinarri hartuta eraiki behar du kristau-komunitatea.



Horrezaz gain, gaur egun gizarteak Jainkoaren zentzua galdu du, eta, beraz, bekatuaren, damuaren eta Jainkoaren barkamenaren zentzua ere bai. Badira pentsatzen dutenak pertsona batek egin dezakeen doilorkeriarik handiena egindako zerbaitez damutzea dela, askatasuna suntsitzea dakarrelako horrek. Barkamena berak prozesu sentimental eta paternalista bat ekartzen duela gogora eta erlijioaren alienazioa dirudiela, Jainkoari errukia eskatzen dion kristauak benetako erantzukizunetatik salbuetsi nahiko balu bezala.

Egia da esperientziak bekatuaren errealitatea erakutsi digula, eta kristauak damurako zein barkamenerako jarrera izan behar duela. Barkamenak maitasun unibertsala eskatzen eta adierazten du, eta barkamena da Jesukristorengandik jaso dugun salbamenaren keinurik sendoena.

Barkamena guri ere barkatu izanaren ondorio da. Ez da bakarrik Jesusen kanpora begirako jarrera antzeratzea, baizik eta guk geuk jasotzen dugun barkamenaren adierazpen publikoa. Jesusen Elizaren adierazpen benetakoa da Caritas, eta sufritzen ari den pertsonaren balizko moralitasuna edo ez-moralitasuna kontuan hartu gabe jakin badakiena maitasun eskuzabaleko egintza bat egiten pertsona ororen alde, pertsonaren sufrimenduari erreparatzen diolako hura epaitu gabe; izan ere, jarrera aldatzea du xede, senideen arteko batasuna ardatz hartuta, hori baita, berez, Jainko-Maitasunaren egintza zentzudunena.

## **FEDEDUNEN OTOITZA**

---

Eska diezaiogun Jaunari, gure Jainkoari, bideratu ditzan guztion bihotzak benetako betiereko baloreetara: barkamenera eta bakera.

- Elizaren alde, zerbitzatzen duen eta behartsuei laguntzen dien Komunitatea izan dadin, Jainkoaren doako maitasunaren lekuko izan dadin, anai-arrebenganako barkamen eskuzabalak zer izan behar duen erakusten duen parabola biziduna izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Politikan eta ekonomian erantzukizuneko postuak dituztenen alde, guztion ongizatea lortzeko justiziak eta kezkak gida ditzaten haien erabakiak eta kezkak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Baztertuta eta bereizkeria bizi dutenen alde, eta mundu honetako ondasunak lortzeko aukera gutxi dituztenen alde, ondasun horiek berak modu bidezkoagoan eta inpartzialagoan eskuratzeko aukera izan dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure kristau-komunitateen alde, gure artean elkar maita dezagun eta guztion zoriontasuna lortzeko benetako kezka izan dezagun, diru-gosez bizi ordez eskuzabaltasunez parteka dezagun eta bekaizkeriaz jokatu ordez maitasunez zerbitza dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko gure Jauna, libra gaitzazu gure baitan biltzera bultzatzen gaituen bekaizkeriatik. **Emaiguzu** grazia elkarren zerbitzura bizi gaitezen, bai eta zure zerbitzura bizi gaitezen ere, gure Jainko. Zure seme **Jesukristo** jaunaren alde, zurekin batera bizi eta errege dena Espiritu Santuarekin batean, gizaldi eta gizaldi guztietan. Amen.